



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erekiunde autonomodunara

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SALA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

**EMAKUMEEN ETA
GIZONEN
BERDINTASUN-
ESKUBIDEEN
DEFENTSARAKO
ARLOA**

**Emakunde-
Emakumearen Euskal
Erakundea**

URTEKO TXOSTENA

HITZAURREA	3
1. ESPARRU OROKORRA	4
1.1 Jarduketa esparruak.....	5
1.2 Gaiak eta prozeduren maiztasuna	6
2. BEREHALAKO AHOLKULARITZA	6
3. IDATZIZ ERANTZUTEN DIREN ETA AURRETIAZKO AZTERKETA ESKATZEN DUTEN KONTSULTAK	7
4. KEXEN PROZEDURAK	7
4.1. Komunikazioaren eta publizitatearen inguruko 2021eko kexen espedienteei buruzko ekarpenak eta kontrastea	9
4.2. Beste hainbat eremutako kexak.....	12
5. 2019KO GOMENDIOEI JARRAIPENA.....	19
6. KOORDINAZIO- ETA LANKIDETZA-MEKANISMOAK	19

HITZAURREA

Urteko txosten honetan, Emakundek 2021ean zehar sektore pribatuan berdintasun-printzipioaren eta sexu-arrazoiengatik bereizkeriarik ez jasateko eskubidearen defentsarako eman dituen zerbitzuak azaltzen dira. Emakundek arlo honetan dituen funtzioak eta mugak otsailaren 16ko 3/2012 Legearen 64. eta 65. artikuluetan daude jasota, hurrenez hurren (3/2012 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzekoa).

Aipatutako artikuluekin bat etorriz, lau jarduketa mota gauzatu dira:

- Esparru orokorra.
- Eskatzaileei berehalako aholkularitza ematea, telefonoz edo aurrez aurre.
- Idatziz erantzuten diren eta aurretiazko azterlana eskatzen duten kontsultak.
- Kexen prozedurak.
- Kexen jarraipena.
- Koordinazio- eta kolaborazio-mekanismoak beste erakunde eta instituzio batzuekin.

Txostenaren ataletatik lehenengoak sektore pribatuan sexu-arrazoiengatik diskriminazioa pairatu duten emakumeak eta gizonak defendatzeko jarduketa-esparru orokorra du hizpide, eta erantzun diren kontsulta eta kexen datu orokorrak eskaintzen ditu; bigarrenak, eskaini diren berehalako aholkularitzen gaineke informazioa jasotzen du; hirugarrenak, idatziz erantzuten diren eta aldez aurreko azterketa behar duten kontsultei buruzko informazioa ematen du. Halaber, kexen prozedura ere jasotzen da, arreta berezia eskainita komunikazio eta publizitate sexistei buruzko kexei. Azkenik, organismo eta erakundeen arteko koordinazio- eta lankidetzeta-mekanismoak zehazten dira.

1. ESPARRU OROKORRA

Otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea sortzea xedatu zen, sexu-arrazoiengatiko diskriminazioko egoeretan herritarrak defendatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa betetzea sustatzeko organo izan zedin: bere funtzioak eremu pribatura mugatu ziren.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzen dituen otsailaren 16ko 3/2012 Legeak Defentsa-erakundea ezabatu zuen, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esleitu zizkion haren edukiak, eskumenak eta funtzioak; nolana ere, atxikipen organiko berria dela-eta, funtzioak pixka bat doitu ziren, eta, gaur egun, honako hauek ditu:

- a) Ikerketak egitea, ofizioz edo alderen batek eskatuta, sektore pribatuan sexu-arrazoiengatik ustez gertatutako zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-egoerak argitzeko.
- b) Negoziatzeko bideak ematea eta gomendioak egitea pertsona fisikoei nahiz juridikoei, sektore pribatuan sexu-arrazoiengatiko diskriminazio-egoerak edo ekintzak zuzentzeko, eta gomendio horien jarraipena egitea, betetzen diren ala ez ikusteko.
- c) Herritarrei aholku ematea, sektore pribatuan sexu-arrazoiengatik diskriminazio-egoerak jazotzen direnean.
- d) Bitarteko izatea jazarpen sexistaren kasuak konpontzen laguntzeko.
- e) Egiten dituen jardueren eta ikerketen berri ematea, eta txostenak eta irizpenak egitea, lege honetan xedatutakoari jarraikiz
- f) Lan-arloko agintaritzarekin lankidetzan jardutea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan diskriminazioaren aurkako lan-arauak betetzen diren begiratzeko.

Era berean, 3/2012 Legearen 65. artikulua jarduketa-mugak ezartzen ditu, eginkizunei dagokienez. Emakundek ez ditu banan-banan aztertuko pertsonen intimitateari dagozkion kezak, ez eta jada epai irmo bidez erabaki direnak edo epaileak oraindik


ebazteke dituenak ere. Era berean, jarduketa eten beharko du baldin eta, hasi eta gero, pertsona interesdunak demanda edo errekurtsioa aurkezten badu auzitegi arrunten edo Konstituzio Auzitegiaren aurrean.

1.1 Jarduketa esparruak

Gizonen eta emakumeen berdintasun-eskubideen defentsarako arloak hainbat jarduketa-eremutan dihardu. Batik bat, zuzeneko aholkuak ematen ditu, telefonoz nahiz aurrez aurre. Ondoren, azterlanen bat behar duten kontsultak edo aholkuak daude, eta horiek idatziz erantzuten dira, posta elektronikoz. Hirugarren jarduketa-eremua kexei buruzkoa da.

- Zuzeneko arretarako bulegoen jarduera (aurrez aurreko eta telefono bidezko aholkularitza).
- Idatziz erantzuten diren eta aurretiazko azterlana eskatzen duten kontsultak.
- Ikerketa-prozedurak behar dituzten kexak.

2021ean zehar, herritarren arretarako berehalako 230 zerbitzu eman dira, guztira. Idatziz erantzundako kontsultak, aurretiko azterlana behar dutenez, eta burututako kexa-prozedurak 110 izan dira guztira; horietatik 58 kontsultak izan dira (% 53), eta beste 52, berriz, kexak (% 47).



Aholkularitza eskatu dutenek erabilitako komunikazio-bide nagusia posta elektronikoa izan da, eta pertsona gehienek gaztelania erabili dute zerbitzu honekin komunikatzeko.

Eskabide guztietatik, 29 aurkeztu dira euskaraz, eta 2, bi hizkuntzetan. Azpimarragarria da gero eta eskabide gehiagori erantzuten zaiela euskaraz. Prozedura horien eskabide-egile gehienak emakumeak izan dira (% 88); gizonak, berriz, % 2 izan dira, eta % 10, azkenik, erakundeei, kontsultariei eta ofiziozko hasierei dagokie, eskubidearen titularra edo kasuaren interes-xedea alde batera utzita.

1.2 Gaiak eta prozeduren maiztasuna

Prozedura gehienak lan-arlokoak dira (% 59), eta, ondoren, hedabideei eta publizitateari lotutakoak (% 18). Horien atzetik, beste esparru batzuen arloko espedienteak daude (% 13), eta ondoren, zerbitzuei buruzkoak (% 8); azkenik, elkarteen arlokoak ditugu, eskabideen % 2rekin. Lan-eremuko kasuek familia eta lana kontziliatzearekin lotutako eskubideak baliatzeari buruzkoak izaten jarraitzen dute. 901/2020 eta 902/2020 Errege Dekretuak onartu ondoren, haien interpretazioari eta aplikazioari buruzko kontsultak areagotu dira.

2. BEREHALAKO AHOLKULARITZA

Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen Defentsa arloak zuzeneko arreta emateko bulegoak dauzka EAeko hiru hiriburuetan. 2021ean zehar, herritarren arretarako berehalako 230 zerbitzu eman dira, guztira. Horietako gehienak (% 50) dibortzioei, banantzei, zaintzei eta askotariko gatazkei buruzkoak dira (auzokideen erkidegoak, lagunak, etab.), eta halako gaietan emakumeak izan badira ere eskabideen titularrak, ez dira Emakunderen jarduketa-eremuaren eskumenekoak. Gai horien atzean lan-eremuko galderak ditugu (% 27), batez ere etxeko zerbitzarien zerbitzuari buruzkoak. Azkenik, genero-indarkeriaren inguruko aholku-eskabideak zenbatu dira; eskabideen % 23 izan dira.

Kontsulta mota	
Lan-esparrua	62
Indarkeria	53
Beste batzuk	115
	230

3. IDATZIZ ERANTZUTEN DIREN ETA AURRETIAZKO AZTERKETA ESKATZEN DUTEN KONTSULTAK

Idatziz erantzundako kontsultak 58 izan ziren guztira, 2021ean. Eskabide horietan aipatutako arrazoiak, besteak beste, lan-esparrukoak dira 47; kontsulta gehien izan duen hurrengo esparrua «Beste batzuk» izan da. «Beste batzuk» esparruan, emakumeen eta gizonen berdintasun-eskubideen defentsarako arloari ez dagozkion gaiak planteatu dira, baina, hala ere, idatzizko orientabideak eta aholkua jaso dituzte eskabide horiek. Zerbitzuen eremuan 2 aholku-eskabide zenbatu dira, eta bat elkarteei buruzkoa izan da.

Lan-eremuan, 901/2020 eta 902/2020 Errege Dekretuen interpretazioari eta aplikazioari buruz kontsultariengandik eta enpresetatik jasotako aholkularitzak nabarmendu behar dira; izan ere, enpresa guztiei eragiten dieten berrikuntza garrantzitsuak sartu baitituzte berdintasunaren arloan. Horrela, alde batetik, 901/2020 Errege Dekretuak erreforma sakonak ekarri zituen Berdintasun Planen arloan, eta 902/2020 Errege Dekretuak, berriz, emakumeen eta gizonen arteko ordainsari-berdintasunaren arloan sartzen zituen halako erreformak. Gainera, programen arloa eta defentsarako arloa estuago aritu direnez lankidetzan, kontsulta gehiago egin eta aholku gehiago eman dira sexu-jazarpenaren eta sexu-arrazoiengatik jazarpenaren aurkako protokoloak sortu eta abian jartzeari buruz. Familia eta lana kontziliatzeari buruzko eskabideak egiten jarraitu dute eskatzaileek, batez ere haurra izan eta zaindu behar izateagatik lan-kontratua etetearekin lotutako eskubidearen inguruan, baina lehen baino urriagoak izan dira halakoak.

4. KEXEN PROZEDURAK

Gaur egun, zabala eta konplexua da sexu-arrazoiengatik diskriminazio-egoeretan dauden emakumeak eta gizonak defendatzeko jarduketaren esparru juridikoa.

Jarraian aipatzen da zein diren, orokorrean, berdintasunerako eta sexu-arrazoiengatiko diskriminaziorik ezerako eskubidearen alde egitea babesten duten oinarrizko arauak:

- Emakumearen aurkako Bazterkeria Modu guztiak Ezabatzeko Hitzarmena (CEDAW); NBERen esparruan hartutako nazioarteko arau hori dela bide, estatu sinatzaileek, bitarteko egoki guztien bidez eta luzapenik gabe, emakumeen kontrako diskriminazioa ezabatzeko politika jarraitzea hitzartu dute. Hori horrela: «Emakumearen aurkako diskriminazioa» esamoldeak agertuko du sexuan oinarritutako diskriminazio, bazterketa edo murrizketa oro, halakoen xedea edo ondorioa denean kaltetzea edo deuseztatzea (politika-, ekonomia-, gizarte- nahiz kultura-esparruetan, esparru zibilean edo beste edozein esparrutan) emakumeari aitortutako giza eskubide eta oinarrizko askatasunak, eta horien izatea eta egikaritzea, haren egoera zibila gorabehera, gizonaren eta emakumearen arteko berdintasuna oinarri.
- 1978ko Espainiako Konstituzioa; horren 14. artikulua ezartzen du espainiarrak berdinak direla legearen aurrean, eta ezin dela sexu-arrazoiengatiko diskriminazioa gailendu.
- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eraginkorrari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak xedatzen du emakume eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioak edozein motatako diskriminazioa baztertzeko duela, zuzeneko edo zeharkako izan, sexu-arrazoiengatik eta, batez ere, amatasunaren, familia-betebeharrak hartzearen eta egoera zibilaren ondoriozkoak.
- Tratu-berdintasunaren printzipioaren barruan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak –3/2012 Legeak aldatuta– pertsonen sexuan oinarritutako diskriminazio oro debekatzen du, zuzena ala zeharkako izan eta horretarako erabiltzen den modua edozein dela ere.

KEXEN PROZEDURAK

2021ean emakumeen eta gizonen berdintasun-eskubideen defentsarako arloak kexen 52 prozedura landu ditu.

Espediente guztietatik, 16 gomendio bidali dira, emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna sustatze eta bermatze aldera. 28 espediente beste erakunde batzuetara bideratu dira, eta horietatik 10, publizitateari edo komunikabideei buruzkoak izateagatik, Emakumeen Madrilgo Institutuaren barneko Emakumeen Irudiaren Behatokira bideratu ziren. Gainera, 10 kexa Arartekoari bidali zaizkio; 4 kexa, berriz, beste administrazio publiko batzuei berdintasunerako teknikarien bidez; beste kexa bat, Lan Ikuskaritzari helarazi zaio; eta 2, azkenik, Fiskaltzari. 6 eskabide artxibatu egin dira, horietako bi, planteatutako gaiak sexu-arrazoiengatiko diskriminazioaren esparruan sartzen ez zirelako, eta kasuetako batean eskabidea bidali dutenek eskatu zaien informazio gehigarria –ikerketa-prozedura bat hasteko behar dena– ez dutelako bidali. Azkenik, 3 espediente izapidetzen ari dira.

4.1. Komunikazioaren eta publizitatearen inguruko 2021eko kexen espedienteei buruzko ekarpenak eta kontrastea

Emakumeen eta gizonen eskubideen defentsarako esparruaren eta Begira Batzordearen arteko lankidetzeta-betebeharra dela medio, herritarrek publizitatearen eta komunikabideen gainean aurkeztutako kexak eta Batzordeak berak ofiziosz planteatzen dituen kexak kudeatu ditu Defentsarako Arloak.

2021ean kexen 20 espediente izapidetu dira. Jasotako kexetan oinarrituta, BEGIRAK 8 gomendio igorri dizkie zenbait erakunderi, kode deontologikoan eta bi dekalogoetan jasotako printzipioetan oinarrituta. Eskumenen aldetik, 10 eskabide bideratu dira, guztiak Emakumeen Madrilgo Institutuaren barneko Emakumeen Irudiaren Behatokira. Azkenik, nabarmentzekoa da bi kexa bidali direla Fiskaltzara, han azter eta balora ditzaten.

Kexaren bat jartzen duten pertsonen profila honako hau da, oro har: emakumea, 31 urtetik 40 urtera bitartekoa, unibertsitate-ikasketaduna eta lanaldi osoko lanpostua duena.

Kexa motaren arabera, (publizitatea edo komunikazioa), 5 publizitatearen arloko kexak dira, eta beste 15, berriz, komunikazioaren arlokoak. Publizitatearen esparruan, kexa gehienak, ustez genero-estereotipoak eta -rolak indartzen zituzten iragarkien gainean egin dira, hala nola gazte, argal eta gorputz perfektuko izatearekin lotzen den edertasun-

eredu bakar bat islatu eta emakumeen gorputza gauza bihurtzen duten iragarkien gainean. Komunikazioaren esparruan, batez ere emakumeen aurkako indarkeria banalizatzen duten eta emakumeen irudi estereotipatua helarazten duten kexak dira.

Herritarrek erakunde honekin harremanetan jartzeko aukeratutako hizkuntzari dagokionez, eskabide gehienak gaztelaniaz egin dira, 3 euskaraz aurkeztu dira eta beste 3, azkenik, bi hizkuntza ofizialetan.

Jasotako kexak, edukien tipologiaren arabera

Jasotako kexak, nola publizitateari buruzkoak hala komunikazioarekin lotutakoak, 2021ean indarrean zeuden formularioetako puntuetan oinarrituta aztertu eta sailkatu dira:

Publizitate sexistaren inguruko kexak jasotzeko inprimakia:

http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas_medios_intro/eu_def/adjuntos/inprimakia_publicidade_sexista.pdf

Komunikazio sexistaren inguruko kexak jasotzeko inprimakia:

http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas_medios_intro/eu_def/adjuntos/inprimakia_komunikazio_sexista.pdf

Publizitate-edukiak

Erabilera sexista mota nagusiak hauek izan dira: emakumeen gorputza erabiltzea objektu estetiko/sexual gisa eta gaztetasunean eta osasunerako kaltegarriak diren jarrerak sustatzerainoko gorputz-eredu hipersexualizatuetan oinarritutako edertasun-ereduak bultzatzea.

Publizitateari buruzko kexak eskumen-eremuan

Jasotako kexetan oinarrituta, BEGIRAK, bere eskumen-eremuen barnean, gomendioa bana bidali dizkie egoitza soziala EAEn duten bi erakunderi. Bi gomendio horiek publizitate-dekalogoaren aplikazioan daude funtsatuta. Gomendioak igorri dira Berangoko Decathlonera eta Limpiezas Anari enpresara.

Eskumen-arrazoiengatik bideratu diren kexak

BEGIRA batzordearen jarduketarako lurralde-eremua EAE da eta, beraz, gure erkidegoan egoitza duten erakunde publiko eta pribatuak (bai publizitate eremua bai komunikazioarena). Halere, era guztietako kexak jasotzen dira, aztertu egiten dira eta Batzordearen eskumen-eremutik kanpo badaude, eskumena duen organora bideratzen dira kexa bidali duen pertsonaren berariazko baimenarekin. Kexa guztiak Emakumeen Madrilgo Institutuaren barneko Emakumeen Irudiaren Behatokia bideratu dira aurren. Kexak jaso dituzten enpresa iragarleak hauek izan dira: SUBDUED, U-Power, ADIF.

Komunikazioko edukiak

Komunikazioaren esparruan, batez ere, emakumeen kontrako indarkeriari garrantzia kentzearekin lotutako kexak helarazi dira; edo emakumeak eta gizonak desberdin eta modu estereotipatuan erakusten eta erlazionatzen direlako aurkeztu dira kexak.

Komunikazioari buruzko kexak BEGIRAREN eskumen-eremuan

Lehen aipatu den bezala, BEGIRA batzordeak ez dauka berariazko funtziorik kexak jasotzeko komunikazioaren alorrean. Halere, eta esleitutako gainerako funtzioak garatzeko, komunikabideek emakume eta gizonen berdintasunarekin bat egiten duten edukiak eman ditzatela sustatzeari dagokionez, kexa horiek bi helbururekin jasotzen dira: lehenik, gomendioak bidaltzeko eta komunikabideetan eremu hauetan sentsibilizazio-estrategiak garatzeko eta, bigarrenik, detektatzeko zein eduki mota diren audientziak gutxien onartzen dituenak.

EAEEn kokatutako komunikabideen artean, enpresa hauei bidali zaizkie gomendioak: El Correo, El Diario Vasco, EITB,

Eskumen-arrazoiengatik bideratu diren kexak

Publizitatearen eremuan bezala, komunikazio-eremuan ere BEGIRAREN eskumenaren-eremutik kanpo dauden kexak jasotzen dira. Halako kexak, beraz, dagokien erakundeetara bideratzen dira; 2021ean, guztiak Emakumeen Madrilgo Institutuaren barneko Emakumeen Irudiaren Behatokia bideratu dira. Kexak komunikabide hauen ingurukoak izan dira: El País, Netflix, El Mundo, Cocina Diez, La Razón, Mediterráneo Digital.com

Beste komunikazio-baliabide batzuk

Kexa Spider Cule youtuberrari buruz; zehazki, youtuber horrek, gizonezkoen eta emakumezkoen futbolari buruz egindako iruzkin eta bideoen bidez, tratu iraingarria ematen die kirol horretako profesionalak diren emakumeei. Kexa Emakumeen Madrilgo Institutuaren barneko Emakumeen Irudiaren Behatokia bideratu da.

Fiskaltzari egindako jakinarazpenak

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako eginkizunak betez, bi kexa jakinarazi zitzaizkion Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltzari, hark azter eta balora zitzan:

- Kexa, RED DE RESISTENCIA CONTRA SAP elkarteak –guraso-alienazioaren sindromearen aurkako erresistentzia-sareak– aurkeztua, Allika Astoreka Abokatuak abokatu-bulegoak sare sozialen bidez (Facebook, Whatsapp, Twitter, Instagram) argitaratutako adierazpen batzuen inguruan. Lehen analisi batean ondorioztatzen denez, abokatu-bulego hark sare sozialen bidez helarazitako mezuak delitua dira agian.
- Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioari dagokion lantaldearen bidez BEGIRA batzordera iritsi zen kexa. Gasteizen gertatutako hilketari matxista baten ondoren, aipatutako lantaldeak kexa bat bidali zuen El Correo egunkariak hilketari eman zion tratamenduaren inguruan. Lehen azterketa batean, biktimak identifikatzeko moduko datuak ematen zirela egiaztatu zen. Zehazki, zuzeneko biktimetako baten izena eta abizena, irudia, egoera zibilari buruzko datuak, helbidea eta abar aurkeztu ziren, eta, horrenbestez, biktima guztiak identifikatu ziren, hala nola bi seme adingabeak.

4.2. Beste hainbat eremutako kexak

Prozedura horien eremu nagusiak lan-arlokoak dira (% 59), eta, ondoren, hedabideei eta publizitateari lotutakoak (% 18). Horien atzetik, beste esparru batzuk biltzen dituen arloa

hartzan duten espedienteak daude (% 13), eta ondoren, zerbitzuei buruzkoak (% 8); azkenik, elkarteen arlokoak ditugu, eskabideen % 2rekin.

LAN-EREMUA

Lan-eremuko 17 kexa-eskabide jaso dira. 901/2020 eta 902/2020 Errege Dekretuen interpretazioari eta aplikazioari buruz kontsultariengandik eta enpresetatik jasotako aholkularitzak nabarmendu behar dira; hala, interesdunak enpresa guztiei eragiten dieten berrikuntza garrantzitsuak sartzen ari ziren berdintasunaren arloan. Orobat, lege-obligazioa jada ezarrita bazegoen ere 3/2007 Legearen bidez, kontuan izanik 901/2020 Errege Dekretuak ezarri egiten duela berdintasun-plan guztiek sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokolo bat izan behar dutela, areagotu egin dira protokoloak landu eta abiarazteari buruzko kontsultak eta aholkuak. Familia eta lana kontziliatzeari buruzko eskabideak egiten jarraitzen du jendeak, batez ere haurra izan eta zaindu behar izateagatik lan-kontratua etetearekin lotutako eskubideei buruz.

Hori horrela, aplikazio bereziko arau gisa honako hauek aipatuko ditugu:

- Langileen Estatutua; 17. artikuluari jarraikiz, nuluak izango dira sexu-arrazoiengatiko zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-egoerak dakartzaten erregelamendu, hitzarmen, itun eta erabakiak.
- 39/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, Langileen familia- eta lan-bizitza uztartzea sustatzekoa. Lege hori oso garrantzitsua izan da, legegintza-aldaketak ekarri baititu lan-arloan, langileen lan- eta familia-erantzukizunak uztartzea errazteko.
- 56/2003 Legea, abenduaren 16koa, Enpleguarena; eta horren 22 bis artikulua, enplegua lortzeko diskriminazioa debekatzen duena.
- 6/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko premiazko neurriena.
- 901/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituena eta laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistroari eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua aldatzen duena.
- 902/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, emakumeen eta gizonen arteko ordainsari-berdintasunari buruzkoa.

Beste eremu batzuk

Lan-eremuaz gain (horixe da kexa gehien eragin dituen), beste eremu batzuei buruzko kexak ere jaso dira, hala nola zerbitzuei eta elkarteei buruzkoak, bai eta bestelako gai batzuk ere, guztiak ere jardunbide diskriminatzaileekin lotuak.

Hona hemen Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen emakumeen eta gizonen berdintasunerako eskubideak Defendatzeko Arloan jarritako kexen zerrenda, kexaren arrazoia eta emaitza zehaztuta:

Q20210002 espedientea	
Kexaren arrazoia	Sexu-arrazoiengatiko jazarpenaren gaineko kexa.
Emaitza	Artxiboa: Judizializatua.

Q20210006 espedientea	
Kexaren arrazoia	Kexa, supermerkatu batean jazotako eraso sexista bati buruzkoa
Emaitza	Gomendioa

Q20210007 espedientea	
Kexaren arrazoia	Sexu-arrazoiengatiko diskriminazioaren gaineko kexa
Emaitza	Artxiboa: Judizializatua

Q20210016 espedientea	
Kexaren arrazoia	Jazarpena sare sozialen bidez
Emaitza	Artxiboa. Kexa aurkeztu duen alderdiak ez du dagokion dokumentazioa bidali

Q20210024 espedientea	
Kexaren arrazoia	Kexa, haurdunaldiari egindako jarraipenean tratu diskriminatzailea pairatzeari buruzkoa
Eraitza	Arartekoari bideratua

Q20210036 espedientea	
Kexaren arrazoia	Kexa, eremu publikoan soldata-diskriminazioa jasateari buruzkoa
Eraitza	Arartekoari bideratua

Q20210038 espedientea	
Kexaren arrazoia	Hizkuntza sexista erakunde publiko baten webgunean
Eraitza	Dagokion berdintasun-unitatera bideratua

Q20210039 espedientea	
Kexaren arrazoia	Zaintza-erantzukizunak dituen emakumezko ikasle bat kexu da prestakuntzan oztopoak daudelako
Eraitza	Arartekoari bideratua

Q20210040 espedientea	
Kexaren arrazoia	Itzulpen-baliabide batek hizkuntza sexista erabiltzearekin lotutako kexa
Eraitza	Gomendioa

Q20210044 espedientea	
Kexaren arrazoia	Emakumezko langile bati ez zaio aitortzen edoskitzaroko arriskua
Eraitza	Erakundeko berdintasun-unitatera bideratua

Q20210046 espedientea	
Kexaren arrazoia	Emakume bat kexatu egiten da zerbitzu publiko batera jo eta tratu diskriminatzailea jaso duelako
Eraitza	Erakundeko berdintasun-unitatera bideratua

Q20210049 espedientea	
Kexaren arrazoia	Jarduera soziokulturaletarako lokal bat erosteko lehiaketa publiko baten inguruan, genero-ikuspegia biltzen duen irizpiderik ez dagoelako kexa
Eraitza	Arartekoari bideratua

Q20210052 espedientea	
Kexaren arrazoia	Zerbitzu publiko bateko emakumezko langile batek <i>mobbingari</i> buruzko kexa bat aurkeztu du
Eraitza	Arartekoari bideratua

Q20210053 espedientea	
Kexaren arrazoia	Emakumezko langile batek kexa bat aurkeztu du, gizonezko lankide batengandik lan-jazarpena jasan duelako
Eraitza	Gomendia

Q20210059 espedientea	
Kexaren arrazoia	Haurdunaldi subrogatuari buruzko prestakuntza-jarduera bat antolatzea
Eraitza	Gomendia

Q20210067 espedientea	
Kexaren arrazoia	Haurdun dagoen emakume batek aurkeztutako kexa, COVID-19aren aurkako txertatzearen inguruan kolektibo horretarako antolatutako protokoloari dagokionez
Eraitza	Erakundeko berdintasun-unitatera bideratua

Q20210070 espedientea	
Kexaren arrazoia	COVID-19ak haurdunaldiari dagokionez sortzen duen ziurgabetasuna dela-eta, amatasun-baja 6 aste luzatzea eskatzen duten emakume haurdunak
Eraitza	Emakumearen Erakundera bideratu da

Q20210071 espedientea	
Kexaren arrazoia	Haurdun dagoen emakume batek aurkeztutako kexa, COVID-19aren aurkako txertatzearen inguruan kolektibo horretarako dagoen protokoloari dagokionez
Eraitza	Erakundeko berdintasun-unitatera bideratua

Q20210078 espedientea	
Kexaren arrazoia	Kexa, Hezkuntza Departamentuan lanaldi-murrizketen inguruko irizpideak aldatu izanari buruzkoa
Eraitza	Arartekoari bideratua

Q20210082 espedientea	
Kexaren arrazoia	Kexa, gurasoak elkarrekin bizi ez direneko kasuetan jantokirako beka esleitzeko irizpideei buruzkoa
Eraitza	Erakundeko berdintasun-unitatera bideratua.

Q20210088 espedientea	
Kexaren arrazoia	Kexa, saltoki batek tratu desegokia ematearekin lotutakoa
Eraitza	Artxibatuta
Q20210091 espedientea	
Kexaren arrazoia	Kirol-fundazio baten administrazio kontseiluan berdintasunik ez dagoelako kexa
Eraitza	Izapidetzen ari da

Q20210092 espedientea	
Kexaren arrazoia	Emakumezko langile baten kexa, emakumeei prestakuntza ematen diharduen fundazioan tratu eta jardunbide umiliagarriak ematen direla argudiatuta
Eraitza	Lanaren Ikuskapenera bideratu da

Q20210095 espedientea	
Kexaren arrazoia	Udal-ordenantza bati eta hizkuntza sexistari buruzko kexa
Eraitza	Arartekoari bideratua

Q20210099 espedientea	
Kexaren arrazoia	Emakumezko langile baten kexa, zerbitzu publiko batek familia eta lana kontziliatzeko oztopoak jartzen dituela argudiatuta
Eraitza	Erakunde publikoko berdintasun-unitatera bideratua

Q20210101 espedientea	
Kexaren arrazoia	Kexa, Basconiako partiden atsedendietan <i>cheerleaderrak</i> egoteagatik
Eraitza	Gomendia

Q20210102 espedientea	
Kexaren arrazoia	Zerbitzu publiko bateko langile batek erretiroa hartu behar du baina ez du nahi
Eraitza	Arartekoari bideratua

Q20210106 espedientea	
Kexaren arrazoia	Ikaskide batengandik pairatutako sexu-jazarpena. Enpresak protokoloa ez aplikatzea
Eraitza	Gomendia

Q20210107 espedientea	
Kexaren arrazoia	Enpresa batek ukatu egiten die gurasoei haurra izategatiko eta adingabeak zaintzeko baimena
Eraitza	Izapidetzen ari da

Q20210108 espedientea	
Kexaren arrazoia	Enpresa batek ukatu egiten die haurdun dauden emakumeei beren lanaldian haurra jaio aurreko azterketetara joateko eskubidea
Eraitza	Izapidetzen ari da

Q20210109 espedientea	
Kexaren arrazoia	Elkarte gastronomiko batean emakumeek ezin dute sukaldean sartu
Eraitza	Gomendioa

5. 2019KO GOMENDIOEI JARRAIPENA

2021. urtean, 2020. urtean bideratutako gomendioen jarraipena egin da. Kasu gehienetan, eman diegun gomendioarekiko konpromisoa agertu dute erakundeek, baina baten batean, erantzun dute gomendioak ezin izan direla abiarazi COVID-19aren eraginez.

6. KOORDINAZIO- ETA LANKIDETZA-MEKANISMOAK

Beste erakunde batzuekiko harremana dela-eta, 2021. urtean harremanak eta bilerak izan dira erakunde publikoekin, lankidetzeta-mekanismoak ezartzeko.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearekin elkarlanean ari gara, eta zenbait lan- eta koordinazio-bilera egin dira.

Emakunderen eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzako Lan-ikuskaritza eta Gizarte Segurantzako zuzendariordetzaren arteko Lankidetzaren Hitzarmenaren esparruan, kexa bat bideratu zaio erakunde horri, haren eskumenekoa izaki.

Berdintasunari buruzko prestakuntzari dagokionez, eta Emakundek EHUrekin duen akordioaren gerizpean, herritarren berdintasun-eskubideak defendatzeko zerbitzuak tutore gisa dihardu Zuzenbideko Gradu eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Masterreko ikasleen praktketan.

Azkenik, EHUko Zuzenbide Fakultateko Justizia Sozialaren Klinika Juridikoarekin elkarlanean jarraitzen da. Klinika hori unibertsitate arloan diskriminazioaren kontrako estrategiak diseinatzeko eta giza eskubideak defendatzeko laborategi bat da, eta Zuzenbidearen ikaskuntza eta eraldaketa pedagogikorako esparru bat da aldi berean.